

Zerumuga, euskal mendiak esploratzeko aplikazioa

Zerumuga, erabat euskaraz garatutako lehenengo aplikazioa da eta euskal mendiak esploratu ditzakezu berari esker

- Zure eskuko gailuaren bidez Euskadiko mendiak esploratu ditzakezu Zerumuga aplikazioari esker eta 360°-ko esperientziaz gozatzeko aukera duzu.
- Aplikazioa doan da Android eta iOS plataformentzat eta euskaraz dago.

Bilbon, 2015eko abenduaren 18an

Zerumuga erabat euskaraz egin den lehenengo aplikazioa da euskal mendikateko mendiak ezagutu ahal izateko esperientzia desberdinen bidez: deiadar mendiak, hiru handiak, infernuko diagonalak...

Aplikazio honi esker, esperientzia bakoitzean sartzeko aukera izango duzu, bakoitzaren historiaren berri izatekoa eta mendi bakoitza sakonago ezagutzekoa. Mendiz mendi ibil zaitezke, gailur bakoitzetik zerumugari begira egon zure gailutik 360°-ko irudien bidez eta toki horri buruzko zehaztasun gehiago jakin: nondik joan, historia, fauna eta flora, geologia eta toki bakoitzeko ibilbiderik esanguratsuenak. Aplikazio honetan datu errealak eta interaktiboak batu dira ilustrazioen, 360° irudien, bideoen, bestelako irudien eta soinuen bidez.

Zerumugari esker, gure ingurua hobeto ezagutu dezakezu zure eskuko gailua erabiliaz, dela etxeko erosotasunetik dela tokian bertatik, mendi bakoitzaren gailurretik.

Worköholics - comunicación y proyectos digitales enpresak sortu eta garatu du proiektua, eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Hizkuntza politika sailburuordetzaren laguntza izan du.